

# Nafarkaria

Nafarroako gehiagarria / Ostirala, 1994ko ekainaren 17a / IV. urtea / 132. zenbakia

## Emakumea, jalgi hadi plazara!



Nafarroako 40 herritan egin dira urtarriletik ekainera bitarte emakumeentzako ikastaroak, Emakumearengatik Zuzendariordetzaren eskutik. Autoestima garatu eta emakumeen arteko harreman eta komunikazioa bultzatzeko helburuarekin, arrakasta handia izan dute herrietako emakumeen artean, eta toki askotan aipatu da bertara joan direnengan sumatu den aldaketa. Egunotan hainbat tokitan egiten ari dira oraindik, eta luze gabe hasiko dira Bidasoa eta Baztan aldean. Urtearen hondarrean izango dute segida Zuzendariordetzak prestatuko dituen ikastaroek, eta beste herrietara ere zabalduko dira. Ikastaroen bukaeran herri orotan egiten ari dira irrati saioak, emakumeek plazara azal ditzaten euren inpresioak. Emakumeak ere plazara jaldi daitezten.

## GURE AUKERAK

### BERTSO SAIOAK



**Manolo Arozena** eta Millan Telleria bertsolarien saioa izanen da gaur, ekainak 17, Arrotxapeako Lore Berri tabernan. Auzoko Jai Batzordeak antolatuta, bertso afari moduan antolatua dago, eta 21.45ean hasiko da. Txartelak Lore Berri, Calixto eta Meson tabernetan eros daitezke.

**Andoni Egaña**, Estitxu Arozena eta Sebastian Lizaso bertsolariak ariko dira bihar larunbata, hilak 18, Iruñeko Amaiur Ikastolan. Bertso-bazkari moduan antolatua, 12.00etan hasiko da.

### ANTZERKIA



**'Bazter utzitako panpinaren istorioa'** izenburuko antzezlan aurkeztuko du heldu den asteazken eta ostegunean Iruña Pequeño Teatro taldeak. Bi emanaldiak Burlatan izanen dira: asteazkenean, Hilarion Eslava Ikastetxean, arratsaldeko 17.30etan, eta ostegunean, hilak 23, Torres Enparantzan, gaueko 22.00etatik aurrera.

**Munduko Malabaristenak** izeneko obra antzeztuko du heldu den ostegunean, ekainak 23, Zirko Ttipia taldeak, Deikazteluko plazan. Udako biran sartuak, 18.30etatik aurrera taularatu dute bere lana.

**Popi eta Zaratrako** pailazo euskaldunen ikuskizuna izanen da bihar larunbata, ekainak 18, Juslarrotxa Zentro Kulturean. Auzoko jaiak direla eta antolatua, goizeko 11.00etan hasiko da emanaldia.

**Xirriquiteula Teatre** antzerkia plazaratuko dute asteburu honetan Dorreaga eta Elo herrietan. Udaberriko Bira programazioaren barruan, bihar larunbata, hilak 18, Dorreagako Foru Enparantzan taularatu dute, arratsaldeko 18.00etan, eta etzi, igandean, Eloko Azoka plazan izanen dira, eguerdiko 13.00ean.

### BESTELAKOAK



**Zaldiko Maldiko** Elkartearen Eguna ospatuko da bihar larunbata, hilak 18. Eguerdian bazkaria izanen da, eta ondoren, Euskararen Saria erabakiko dira: alde batetik sari ona, 'Lamien Urrezko Orrazia' deitutakoa, eta bestetik, sari txarra, 'Asto-Masto' izenekoa.

## NAFAR KRONIKA

ANA UNANUE

### Neutralak

Garai batean kazetariok neutralak izan behar genuela esaten zen. Neutrala: liskar edo auzi batean, ez alderdi bataren ez bestearen alde agertzen ez dena. Eskerrak nik ezer ikasi ez nuen unibertsitatean honelako ikasgaiak aspaldi gauditu zituzten; Opusekoentzat lortu beharrekoa ez da neutral-

xako erreserba bereziak goiz goizetik hartu zuen Iruñeko alde zaharra, urtetan saguzosita egon den Euskal Jaitik okupak kanporatzeko. Okupazio indarrak okupen aurka. Kaleak itxita, jipoiak, gomazko pilotak, ke poteak: betiko moduak eta betiko inpotentzia.

Odol epelekoa izan behar

latura igota bost lagun eguzkipean kiskaltzen ari zirela. Gazte bat egurtuko dute, argazkilari bat bultzata lurrera botako dute gure muturren aurrean... baina gu isilik: lanean ari gara, neutralak gara, ezin dugu ez alderdi bataren ez bestearen alde agertu. Hau pasifue!

Kazetari neutralak bel-



tasuna, egia baizik —egia bat eta bakarra delakoan, jakina—.

Eskerrak eskola honetakoak naizen, maiz zaila gertatzen baita berriekiko eduki behar omen dugun distantzia gordetzea. Eta herenegun, zaila baino ezinezkoa. Erri-

da honelakoetan ez oldartzeko, baina bistan da zenbaitek odolik ez dutela zainetan, ez epel ez hotz. «Ea behingoz jaisten dituzten, ez dute pentsatuako egun osoa dugula hemen begira egoteko» eta antzekoak aditu behar lankideen ahotan, gaztetzeko tei-

durtzekoak dira, apolitikoak direla diotenek ikara ematen duten bezalaxe. Lanean ari gara, bai, baina badakigu zer gertatzen zaien betebeharraren aitzakiaz herritar —eta are gehiago, pertsona— izateari uko egiten diotenei: poliziak dira.

### ASTEKO PERTSONAIK



Iñaki Ibañez  
Futbolaria

Bigarren Mailara jaitsi arren, Osasunara itzuli dira Iñaki Ibañez eta Pizo Gomez futbolariak. Ibañezek bi denboraldirako sinatu du, eta Pizo Gomezek, berriz, hirurako. Orain dela bi urte Valenciara joan zen Ibañez, ehun milioiren truke erosi baitzuen Levanteko taldeak. Han, ordea, gauzak ez zaizkio sobera ongi atera, eta hurrengo denboraldirako ez zuten berarekin kontaktzen. Lehen mailako beste eskaintza batzuk izan arren, Osasunara etortzea erabaki du. «Diru gutxiago ordaintzen badidate ere, itzultzearekin ez dut dirurik galtzen. Esperientzia positiboa izan da Valenciakoa, baina etortzeko sasoa zen». Dirudienez, denboraldi honetan izan duena baino talde sendoagoa osatu behar du Rojok, Lehen Maila igotzea apustu serioa eta zaila baita.



Alfredo Jaime  
Iruñeko alkatea

Asteazkenean Iruñeko Alde Zaharrean izan ziren istiluen azken erabakia Ruiz de Alegria gobernu ordezkariarena izan bazen ere, Alfredo Jaime egon da sorburuan, ezin uka. Eta atzokoak bizilagun askoren haserre piztu zuen, inon baino gehiago. Harrigarria da lokal bat okupatzen den bakoitzean Udalak izugarritzko asmoak azaltzea bertan eraikitzeko, jakina baita bertan dauden lokal hutsak andana direla. Egun osoa kaleak trabaturik, ogia erosteko dendara sartu ezinean, eta etxera joateko identifikatu beharrak ez du asko laguntzen auzokoak etxean senti daitezten. Gogoan hartu behar da gazteek okupaturiko lokala garbitu eta txukundu egin zutela, arratoiz eta xiringaz beteta aurkitu ondoren. Gazte asko, hori bai, kokoteraino daude.

### AHAZTU GABE!

#### EUSKARAREN EGUNA

**Gaur ostirala**, Euskararen Eguna ospatuko da Altsasun, bertako Euskara Zerbitzuak eta ludotekak antolatutik. Arratsaldeko 5etan, horrela, malabareak, txalaparta eta kamiseta tailerrak izando dira, eta baita margo tailerra ere. Arratsaldeko 7etan pailazoak izango dira Foruen Enparantzan. Eguna bereziki prestatuta dago herriko haurrendako, eta kamisetak egin ahal izateko, etxetik eraman behar da zahar bat. Halaber, pailazoez aparta botako dute plazan ekitaldiaren zehar, eta antolatzaileek gomendatu dute arropa zahar eta eroso eramatea. Hau da Euskara Zerbitzuak eta ludotekak aurrean antolatuko duten ekitaldia, udan sartu aurretik. Gogoratu behar da ipuin kontalariak arrakasta handia izan dutela, eta udan haurrendako tailerrak ere antolatuko direla.

#### JENERO XUMEKOAK

##### Poeta mistikoak etortzekoak dira

Jendea Imirizaldukoa da, edota Aretxabaletakoa, edota Druckbuchstabe n-goa. Hala ere, Imirizaldukoa den tamainean, Imirizalduaren gainean dagoen zeru horretakoa da. Serioski pentsatuz gero, Imirizalduko zera Imirizalduko lurra baino haundiagokoa da, eta halere buru makur bizi behar, lurrari begira. Poeta mistiko batek idatzi zuenez, guk gauza aunitz dugu, eta gauza guzietatik gehixeago izan nahi dute.

ELIAS SARASA - ERRO

#### ADI!

##### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

##### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

##### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

##### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Arbizu

Navarreriako iturritik

Juan Kruz Lakasta




# Bierrik kultur elkarte sortu da

PATXI ULAIAR / ARBIZU

Bierrik kultur elkarte berria osatu da Sakanan, kultur ekintzak antolatu eta bereziki euskara eta euskal kultura sustatzeko ekimenak bultzatzeko, aldiko argitalpen (prentsa) eta ikus-entzunezkoen (irradi eta telebista) bidez. Sakanan irail aldera atera nahi den herrietako aldizkaria laguntza izango da elkarte honen betebeharr nagusietako bat.

Elkartearen estatutuak onartzeko bilera Arbizun Sakanako Mankomunitateak duen bulegoan egin zen, eta bertara 25 bat lagun azaldu ziren. Estatutuak onartu ondoren, zuzendaritza batzordea hautatu zen eta aurrerantzean argitalpen berria ateratzeko behar diren urrats guztiak eman beharko ditu taldeak.

Eskualdean herri aldizkaria ateratzeko asmoa Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan sortu zen, eta honek proiektua osatu ondoren, nolabait geldirik geratu zen. Aurten, baina, Olatz Irizar, Amaia Amilibia eta Aitziber Etxaiz kazetaritza ikasleek aurrera egiteko erabakia hartu dute, eta beraiek hasi dira proiektua garatzen. Azken bilera horren helburua elkarte sortu eta zuzendaritza izendatzea zen.



Bierrik izeneko kultur elkarte berria osatu da Sakanan.

Behin proiektua eginik, finantzabideak bilatzea izan da lan premiazkoena. Orain arte landutakoaren arabera, Sakanako Mankomunitateak milioi erdi pezeta emango du aurten, eta Nafarroako Gobernuaren deialditik ere zerbait jasotzeko esperantza dute antolatzaileek. Halaber, Altsasun ari den Cederna-Garalur taldearekin harremanetan jarriko dira, eta inguruan dauden enpre-

sa handietan egin diren elkarrizketen ondotik, milioi bateko publizitatea lor daitekeela uste dute bertan. Luze gabe hasiko dira denda eta lantegi txikiak jorrazten. Kontuan harturik aldizkaria, oraingo, hilabetekaria izango dela, aurrekontua 4.700.000 pezetakoa da, jakina, gutxi gora-behera.

Aldizkariak Sakanerriko informazioa landuko du, eta «arina

eta ulerterraza» izango da, proiektua garatu duten kazetarien esanetan. Halaber, irudi eta argazki franko ekarriko ditu, eta Sakanako tokian tokiko azpieuskalkiak edo aldaerak ere jasoko direla azaldu dute. Sakanako euskaldunek euskara maila ezberdina dutela kontuan harturik, euskalduntzen ari diren lagunek eta haurrek tarte berezia izango dute aldizkarian.



## Errepidean

Nire garaian ez zegoen ET-Brik, eta, beraz, ez genuen Txirri, Mirri eta Txiribiton telebistatik ikusteko paradarik izaten. Garai hartan Kiski, Miski eta Kaskamelon deitzen ziren, eta urtean behin besterik ez ziren Iruñera etortzen, Salestarren aretora hain zuzen. 'Sagarra mantzana' eta euren beste zenbait hitz parade ezagutzen genituen, baina egia esateko, gure artean askoz arrakasta handiagoa zeukaten Fofok —goian bego— eta bere mariatxiek. Betiko markatu ninduen Fofozenak idatzirik 'En el auto de papá nos iremos a pasear' kanta itzelak, eta Gabik horretan egiten zituen saxofoi soloak. Tu-matxa!

Geroago, Ramontxo, oilasko frijituaren erregea zelarrik, autopistan, limitean —kontuz, mugan, eta ez Uharteko diskotekan— bere kotxearekin kilometroak etengabe erretzen zituela abesten entzun nuen hamaika aldiz. Ramonek —orain ez du diminutiborik nahi— bategi daki nongo kirofanoan sudurrekin batera nortasuna galdu zuen aspaldian. Jada ez da inongo erregea, asko jota telebistako bufoi lizun samarra besterik ez, baina berdin dio, oraindik ere buruan daukat bere kanta hura, limitearena alegia.

Eta horien atzetik beste hainbat kanta etorriko ziren, besteak beste, Loquillorena *cadillac* batetik Bartzelonari so egiten, edota Patagoniarena, '130 kilometrotara rock & rolla entzuten' kima luzedun horien abesti markarra —kontuz, adjektibo horrek ez dauka begiekin inolako zerikusirik— bezain ona.

Horiek guztiak direla medio nago nagoen tokian, goizeko seiak direnean, parranda gau itzel baten hondarrean, eskuakin bolantea gogor estutzen dudana bitartean, AC/DCren musika entzuten. Finean, horiek guztiak ekarri naute hona, haizea aurpegiaren kontra nabaritzen abiatzen zirela sentitzerik Etxauriko jaietako auto-txoke —auto-istripu esan beharko, agian— batean montaturik. Gora errepidea, gora abiadura.

## Donibane-Garazi

# Lizarra eta Garaziren birazkatzearen 30. urtemuga ospaten da aurten

L.E. / BAIONA

Aurten ospatzen da Donibane Garazi eta Lizarraren arteko birazkatzearen 30. urtemuga. Duela zenbait egun Lizarrara etorri ordezkaritza batekin urtemuga horren lehen ospakizuna egin zen. 1964.eko maiatzaren 24ean bi hirietako auzapezek, Garaziko Maurice Lhosmot eta Lizarrako Moises Iturriak 'paktu' bat sinatu zuten. Horren arabera, kultur, kirol eta eskola mailako harremanak hasi eta biderkatu nahi ziren. Santiagoko Bidean jarriak diren bi toki ospetsuek, bideak sortutako loturatik ibiliz, elkarlanen ekintza guziz naturala zirudien.

Maiatzaren 25ean, bi hirien ordezkariek Lizarrako Herriko Etxean bildu ziren. Jose Luis Castejon alkateak Charles Cabrol bere kideari ongi etorria egin zion. Patxi Azpilikueta, udaletxearen birazkatzearen arduraduna hor zelarrik, hitzaldiak

euskaraz, gaztelarrez eta frantsesez iragan ziren. Garazitik hamaika zinegotzi etorriak ziren. Gaiteroen doinuak, Ibai Ega eta Larraiza dantza taldeekin meza nagusi batetara joan ziren. Hor Fernando Sebastian Iruñeko artxapezpikuak hitza hartu zuen. Bilera berdintsua datorren udazkenean egin beharra da Donibane Garazin.

Nahiz harreman jarraikiak 30 urte hauetan izan diren erran daiteke hala ere neurri apalean egon direla. Baiona eta Iruñearen arteko loturaren antzera, emaitzak ez dira oraindik nabariak, udal bakoitza gehienbat 'bere hartan' egon baita. Hala ere, printzipiozko lotura finkatuz geroz, argi da etorkizuna irekia agertzen dela. Europaren klitxea edo mugen apurtzea hitzen mailan egoten da maiz baina Nafarroak, erresuma zahararen izatearen aitzakitik ibiliz, arrazoi nagusia dauka bere Ipar eta Hegoaldeko herrien arteko loturen

indartzeko. Hori etorkizunerako esperantzagarri da.

Urtemuga hau harremanetaz puntu baten egiteko aitzakia da. Azken urte hauetan mugaz bi aldeetako harreman ofizialek toki guti eskaini diote euskarari. Euskara ez da gehiago 'lotura naturala' askorentzat, galdu baita, baina argi da bere tokia daukala. Eskoletan gaztelararen ikastea garaztarrek eta frantsesa lizartarrek hala ere gutienezko edukintzat har daitezke. Kirol edo festen mailan indartu harremanek bide eginaraziko diote nafartarrek elkarren artean duten aspaldiko loturari.

## Irun

### Nafarrentzako Eguna prestatu dute igande honetarako

IRUÑEA

Nafarrentzako Eguna ospatuko dute igande honetan Irungo Urdaibia hotolean, bertan eta inguruetan bizi diren nafar guztiaren artean. Hasieran Irun, Hondarribia eta Hendaia bizi direnendako zen deialdia, baina antolatzaileek joan nahi duen nafar oro gonbidatu dute bazkari eta festara. Mezaz, bazkariak eta musikaz gain, Nafarroako produktuen erakusketa izango da hotel berean. Bazkaria 4.000 pezeta kostako da, eta joan nahi duenak Urdaibia hotelera hots egin dezake: (943) 63 04 40.

**GOIZANE**  
JATETXE BEGETARIANO

Irularrea kalea, 6-8 (Urgentzien aurrean),  
Virgen del Camino Ospitalea Tf: 948-26 39 27 IRUÑEA

Te areto integrala

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

«Gaur semeak esan dit, 'ama, ze usain ona duzun!'; hainbeste poztu nintzen, lore bat atera zitaidala; ez gaitezen txoroak izan, eta pozik egon gaitez; loreek fruituak eman dituzten, ez dezagun geure burua beti kritikatuz!». Arroniz egindako hau bezalako ehundaka poesia, bertso eta narrazio txikiak jaso dituzte azken sei hilabeteotan herrietako emakumeekin ikastaroak prestatu dituzten langileek. Hor azaltzen da, inongo teoria baino franko garbiago, herrietan baxtertuena eta ahaztuena izan den gizartearen zati honen jarrera, bere autoestima altxatzeko antolatu diren ikastaroen ondorio. Futura 94 izenburuean, lurraldearen zati oso bat landu da hilabete hauetan, emakumeek dagokien papera bete dezaten, konplexurik gabe, eta emaitzak begi-bistakoak dira. «Ikastaro honetan lehen ezinezkoak iruditzen zitzaizkigun ekintzak egin ditugu —mintzaldiak, antzerkia—, lotsa erabat ahaztuta», azaldu dute Olaguen bildu diren emakumeek.

Partehartzea sendotu eta baxterkeria amaitarazi. Hauek izan litezke Futura 94 izeneko egitasmoaren helburu nagusiak. Erraz esateko baina zaila gauzatzeko. Emakumearen Zuzendariordeak urtariletik aurrera eta ekaina bitarte antolatu dituen ikastaro hauen bidez, ordea, Nafarroako herrietako emakumeen artean zerbait aldatu dela esatea ez da arranditsu. Beraiei entzutea besterik ez da. Mendazan idatzirik berto hauek, kasu. «Eman ziguten heziketa josi eta erratza pasatzeko, eta gizona, atsedendian, tabernara joateko; eta egarri zela esan zuen lehen emakumea, kritika franko jaso zuten, tabernara bakarrik joategatik. Lasai, gizona, gehiago hitz egingo dugu eta; ozenki mintzatu ez bazara, entzungo dizudala; beti izango gara andrea eta ama gozoa, gure ezaugarriak kontuan hartuz: gora gure autoestima!».

**'5b' ALDERDIKO 40 HERRIETAN** '5b' izeneko alderdiko 40 herrietan egin dira ikastaroak, hiru motatakoak: emakumei zuzenduta, gizarte agenteei —gizarte langileak, zinegotziak eta abar— zuzenduta, eta irriti saioak. Lehendabizikoei emakumeen harreman sozialak hobetzea dute helburu.

**Emakumeen partehartzea sendotu gizartearen eta baxterkeria amaitarazi dira Futura 94 egitasmoaren helburu nagusiak.**



**N**afarroako 40 herritako emakumeek urtarrila eta ekaina bitartean ikastaro berezia egiteko aukera izan dute. Futura 94 egitasmoaren barruan, Emakumearen Zuzendariordearen eskutik, autoestima garatu eta herrietako emakumeen arteko komunikazioa eta harremana bultzatzea izan dira helburuak. «Gutziz positibotzat» hartu den egitasmo hau, baina, ez da hor bukatzen, eta ikastarorik gabe gelditu diren herrietan heldu den urtean egingo da.

## «Ama, ze usain ona duzun gaur!»

Horretarako autoestima lortzeko hainbat lan egiten dira, beraien segurtasuna handitzeko. Agente sozialekin egiten den ikastaroa bigarren urratsa da, horrela emakumeek aurrerantzean erreferentzia bat izango dutelako herrian gauzak egin edo beraien artean antolatzeko orduan. Hirugarren tailerrean, emakumeek ikastaroan ikasi dutena kanporatzen dute herrian egiten duten irriti saioaren bidez, elkarriketarako, euren lanak eta herrietako gauzak azaltzen.

«Ikastaro honek ez du zerikusirik orain arte egin dugunarekin», diote Olaguekoek. «Ez genuen horrelakorik espero, baina jendeak oso ondo zehatzak ateratu ditu». «Esan diguten guztia bagenekien guk, baina balio izan digu pentsatzeko, eta gauzak beste era batera antolatzeko». Ikastaroak La Productora enpresaren eskutik egin dira, eta bertako langile batek azaldu duenez, jarrera asertiboa lortzea zen hel-

burua. «Hau da abildade sozialak erabiltzen jakitea. Esate baterako, ikasi faboreak eskatzen, kritikak egiten, ezetz esaten nahi dutenean, loreak botatzen edo solasaldiak moztzen baina, beti ere, era egokian. Guzti honek segurtasuna ematen die gauzak egin ahal izateko».

### ETXKO HARREMANAK ALDATZEN

Honek zer eratzina izan duen ondokoengan? Emakume gehienek azaldu dutenez, etxeko harremanak aldatzen hasiak dira, desberdintasunak sumatu dituztelako. «Umeek barre egiten dute, baina edade horretan daudelako», diote Olague. «Gizonak kezkatu daude: 'tailer hauetatik zer aterako da? Ez gara izango gu orain morroiak!', idatzi zuten Mendazan. Nolanahi ere, ez da inoiz aztertu ikastaroetan emakumezkoak eta gizona biltzeko aukera. «Ezin zen harreman guztiak aldatzeko tailer mistoak

egin», azaldu dute langileek. «Emakumeen konfiantza lortu behar zelako, eta hori gizona batera zaila zelako. Nolanahi ere, jende gaztearekin egiten diren ikastaroetan emakumezkoak eta gizona biltzeko parte hartzen dute».

Toki orotan antzematen dira emakumeen arazo bertsuak: komunikazio falta eta egiten den lanaren onarpen sozial eskasa. «Emakumearen okupazio bakarra izan dira etxeko lanak», idatzi dute Aezkoan, «eta horrek baxterkeria, komunikazio falta eta

**H**iru ikastaro dira eta hirugarrenean, irriti saioan, emakumeek ikasitakoak kanporatzen dute herrian egiten den saioaren bidez.



Olagueko ikastaroan parte hartu duten emakumeek «oso positibotzat» jo dute ikastaroa, «lehen kapaz ez ginen gauzak egiteko adorea eman digulako», eta aukera hau izan ez duten emakumeek ere animatu nahi izan dituzte parte hartzen. OSKAR MONTERO

interesik ez handia sortu dute. Gure harremanak oso eskasak dira, eta askotan ditugun arazoak amankomunak dira». «Konturatu gara», berretsi dute Olague, «gure ustetan gureak bakarrik ziren arazo berberak ditugula denok, eta oso arruntak direla. Hortik atera ahal izateko gure buruan konfiantza behar genuen,

## Felix Iriarte zena

● Gure eskualdean izan ditugun bertsolari ospetsuenetako bat aipatu behar dugu. Felix Iriarte Sunbillan sortua 1912-ko Urriaren 1-ean. Gero Felixen familia etorri zen Iruritarra bizitzera. Felixen haurri-deak Iruriten sortuak ziren. 9 urte zituelarik gan zuten Aldudeko Kostartera artzain-mutiko bezala eta Kostarterean ikasi zuten eskola pixka bat eta lehenbiziko Jaunartzea ere Alduden egin zuen. 12 urte zituelarik idatzi omen zituen lehenbiziko bertsuak eta hor egin zituen bertsuetako lehenbiziko ikasketak. Harriet-Premundo alduar bertsolaria bere irakasle zelarik. Noiz arte Kostarterean? Soldadu gan arte. 1933-ko 'kintoa' zen eta soldadu deitu zuten Espainara eta hemen serbitu zuen 'Palenciako Batallon Ciclista' delako Talde hortan. 1934-an soldadu zagolarik Asturias-ko erreboluzioa bete betean arrapatu zuen eta gudu hortan parte hartu ere. Gero lizentziatu zutenean berriz ere Bankara etorri zen eta oihanetan aritu zen lan bortitzetan. Gero Bankako Zubiainean mutil urte andana bat eta urte hoietan beti bertsotan bere lagun Premundo eta bertze aunitzekin.

1936-ko Urtarrilaren 12-an antolatu zuten Elizondan Nafarroako Bertsolari Xapelgoa eta Felix ere etorri zen, Harriet-Premundo eta bertze bi bertsolariekin, Larrosa eta Sahargun bankarrak. Antxitonek trinketea egin zen Lehiaketa hori eta hortan 10 bertsolari parte hartu zuten. Felix Iriartek irabazi zuen lehenbiziko Saria. Bigarren Mutuberria Eltzaburukoa. Hirugarren Harriet Aldude. Laugarren Mixel Dargaitz Amaiur. Felixek orduan 23 urte zituen eta orduan egin gintuen elkar ezagutzak. Nik 20 urte nituen.

Gero ondoko igandean Urtarrilak 19-an Donostian ospatu zen Euskalerriko Xapelgoa eta gure bertsolariak harat gan ziren, Iriarte, Harriet eta Dargaitz. Mutuberria ez zen gan. Euskalerriko Xapelgo hau Txirritak irabazi zuen. Bigarren Uztapide. Hirugarren Zepai. Laugarren Mixel Dargaitz eta

bosgarren Felix Iriarte. Lehiaketa hontan 10 bertsolari aritu ziren.

1936-ko lehenbiziko hilabete hoietan eta Uztailaraino, Iriarte ibili zen gure eskualdean Dargaitz lagun zuelarik, Euskal bestetan eta holako bilereetan, Elizondan; Erratzu, Iturenen eta herri aunitzetan.

Gero Espainiako gerra eta ondorio haundigokoa eta aunitz urtez bertsolariak mutu.

1938-an Felix Bankako Berjantora esposatu zen.

1946-ean, gerra ondoan Hermandorena jaunak antolatuz eta 1955 urteak arte, Iriarte bertsolaria plazaz plaza ibili zen Xalbador, Mattin, Zubikoa, Uztapide, Basarri eta bertze bertsolari aunitzekin, Lapurdi eta Baxenarrako herrietan baina, euskal besta eta Xapelgoetan ere. Urte hoietan Bertsopaperak ere idatzi zituen, hoienean aipatzekoak dira: 'Hitlerren amentsa', 'Behi baliosa', 'Euskal Herriko zazpi probintziak' eta gehiago ere badirela hain segur. Bertsopaper hoiak saltzen ibilia zen.

Familiako nahigabe baxterkeria bertsuak utzi zituen eta andrea ere hil zitzaion.

Urte aunitz iraganik, bertsorik kantatu gabe eta 70 urteak gainean zituela, berriz ere bertsu munduan sarturik, 1983-ko Nafarroako Bertsolari Xapelgoan parte hartu zuen Elizondoko Antxitonek trinketea. Gero 1984-an Bidararra trinketea, 1985-an Aiherran eta 1986-ean Heletan.

Omenaldi bat ere egin zioten Bankan 1984-ko Ekainaren 24-ean Erixko zabilen Felix eta ez ongi. 1986-ko Ekainan anka bat moztu zioten eta aski larri zabilen egoera urrikalgarrian. Azkenean hainbertze sofrikario jasanik, 1987-ko Otsailaren 16-ean hil zitzaizkion gure Felix bertsolaria, Nafarroako bertsolarien Xapelgun izana duela 58 urte. Zeruan bedi gure adiskide Felix Iriarte.

**Mariano Izeta** Erlojularia

Hainbat herritan beste herrietako emakumeak ere ezagutzeko nahia azaldu zen, elkarrekin bildu eta ekintzak antolatzeko, baina badakite herrietan gehiago mugitu behar dutela, hori delako euren esparrua. «Duela gutxi arte gehiago biltzen ginen», diote Olague, «baina orain oso geldirik gaude.

Festetan ez dugu ezer antolatzen, eta egiten dugun gauza bakarra bazkaria eta afaria prestatzea da». Lehen ekintza gaur bertan zuten herrian, irriti tailerrekin. Bertan utzi genituen, antena non paratu behar ote zen erabakitzen.

**T**oki guztietan aurrerantzean zerbait gehiago egiteko erabakia hartu da, eta hainbat herritan beste herrietako emakumeak ere ezagutzeko nahia azaldu da.



**S**an Agustin kaleko bosgarren zenbakiko eraikina botako dute aurki, bertan etxebizitzak egiteko. Duela hamar urte, abandonaturiko zinema bat besterik ez zen Saide enpresaren eraikin hori. Nafarroako Antzerki Eskolak, baina, zinema alokatu zuen 1986an, eta geroztik egoitza gisa erabili du.

## Antzerki eskola ikasgelarik gabe

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Nafarroako Antzerki Eskolak (NAEk) egun San Agustin kaleko bosgarren atarian du egoitza, Saide enpresaren eraikin batean, Euskal Jai pilotalekuaren ondoan hain zuzen ere. Orube batean zein bestean egun kultur eta kirol azpiegiturak besterik ezin dira eraiki Iruñeko Urbanizazio Ordenamenduaren Plangintza Orokorren (IUOPoren) arabera. Hori dela eta, Maite Pascual NAEko zuzendaria harriturik geratu zen duela bi aste egunkarietan Nafarroako hiriburuko udalak orubeotan etxebizitzak eraikitzeke baimena emanen zuela irakurri zuenean; «batetik, berria bera harrigarria zelako, eta bestetik, oraindik ere harrigarriagoa zelako prentsaren bitartez eduki behar izatea horren berri, aurretik horren arduradunen azalpenik jaso gabe».

Egunkariak, baina, ez zebiltzaten oker. Jose Antonio Ercillaren Euskal Jai SA enpresak aurkeztutako proiektua aintzat hartuz, Iruñeko udalak IUOPO aldatuko du, aipatu San Agustin kaleko orubeetan garaje eta patio pribatuden etxebizitzak eraikitzeke. Proiektuaren arabera etxebizitzek Alde Zaharra indartzen lagunduko dute, auzora biztanle berriak erakarrit. Talde gehienak ados daude horretan, eta proiektuak ez du aurrera ateratzeko orduan bere bidean inolako oztoporik topatuko.

Maite Pascualek, beraz, harriduraren harriduraz, Saide eraikinaren jabeengana jo zuen, euren asmoak zeintzuk ziren jakiteko xedeaz. Eman zioten erantzuna oraindik harrigarriagoa gertatu zitzaion. Egund, NAEko urtero 3.600.000 pezeta ordaintzen



Istilu larriak izan ziren atzo NAEko eraikinaren inguruan.

JOXE LACALLE

dizkio Saideri eraikinaren alokairu moduan. Saidek baldintza berberetan Arrosadia auzoko Gelbenzu zinema eskaini zion NAEri: berriro ere harrigarria, batez ere zinema hori askeneko erabili zenetik urte askotxo igaro direla, eta Alde Zaharretik urrun, oso urrun dagoela kontuan hartzen bada. «Duela hamar urte San Agustin kaleko egoitzan sartu ginenean guztia berri eta txukundu genuen. Neke eta izer-

di franko eman genuen horretan, eta ez litzateke zilegi izanen berriro horretan hasi behar izatea».

### ALDE ZAHARRA NAHIAGO

Gauzak horrela, Maite Pascualek eta NAEko kide guztiek harridura alde batera uztea, eta bestelako irtenbide bila hastea erabaki zuten; izan ere, zuzendariak azaldu zigunez, ez dute Alde Zaharra utzi nahi. «Ez dakit etxe berriek auzoa berpiz-

tuko duten ala ez, nik ezetz esanen nuke, baina argi dago guk lan handia egin dugula azken hamar urteotan auzoa bizten. Hemen bederatzi irakasle gabiltzala lanean, urtero 500 lagun igarotzen dira gure klaseetatik, eskolako ikasleak, ikastaro trinkoetakoak, Unibertsitate Publikoko antzerki tailerrekoak, San Francisco eskoletako haurrak... Horretaz landa, aurretik, 1993ko urritik 1994ko ekainera arte 12.000 la-

gun izan dira gure aretoan, eta gure aretoak asko jota 400 pertsona besterik ez ditu hartzen».

Argudio horietan oinarriturik, eskolak bi irtenbide aurkeztuko dizkio Udalari, Alde Zaharra ez uzteko xedearekin. Batetik, Irakasle Eskolaren San Jose plazara egoitza ohia izatea NAEren egoitza. Bestetik, San Agustin kaleko orubean eraikiko diren etxebizitzak berrietan beheko solairua NAErentzat gordetzea.



Okupatzaileak goizean egotzi zituzten Euskal Jaitik.

JOXE LACALLE

## Okupak

J.K.L. / IRUÑEA

■ Euskal Jai pilotalekua okupatu zuten gazteak izan dira, hain zuzen ere, eskolaren egungo egoeraren eragileak. Gazteek eskolari inolako kalterik egiteko asmorik ez bazuten ere, euren okupazioak nabarmen arindu eta azkartu ditu Iruñeko Urbanizazioaren Ordenamendu Plangintza Orokorren eskolaren eta pilotalekuaren San Agustin kaleko orubeak kultur eta kirol azpiegiturak hartzeko orubeak izatetik etxebizitzak hartzeko orubeak izatera pasatzeko tramiteak.

Jose Antonio Ercilla zarpigarraren zenbakian dagoen Euskal

Jai pilotalekuaren jabeak 17 urte eman ditu proiektu hori gauzatu nahian, pilotalekua itxi zenetik gaur arte. Urteotan dozenaka bilera izan ditu Udaleko ordezkariarekin, horietatik inolako etekinik ateratzea lortu gabe. Gazte Asanbladak duela bost aste Euskal Jai pilotalekua okupatu zuenean, baina, ordura arte oztopoz beteriko bidea zena autobide bilakatu zen. Bi bilera izan zituzten Ercillak eta Jaime Alkateak, eta kitto. Atzo okupak Euskal Jaitik kanporatu zituzten, eta makinak birrintze lanetan hastekoak ziren. Batzuek eusten zioten teiltuan. Aurki eskolako antzerkigileei helduko zaie txanda.

# «Kulturak on handia egin du Sarajevon»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Nola gogoratzen duzu gerra aurreko Sarajevo. Jasan duena jasan ondoren, oraindik gogoangarria da? **JASNA SAMIC.**— Gerra aurretik zerbait izugarria, ustela sumatzen genuen, arrazoindu ezin zitekeena. Bi Sarajevo mota zeuden orduan: bazen mundu guztia maite zuen Sarajevo bat, kosmopolita eta kulturaz beterikoa. Baina gero hor zegoen nik komunismoa deitzen nuen sistema —akaso besterik zen—, ustelkeriaz be-

hori ezinezkoa dela, ez politikoki jakina, armekin lor daitekeelako. Baina nik uste dut Sarajevo eta Bosnia nahasita eta mistoak baino ezin direla izan, ezin dutela aurrera egin, nahasia izan delako beti. Belgradek ezingo du irabazi, urrunegi joan direlako. Eta krimenak horri aurrera jotzen duenean, azkenean galdu egiten du.

**EGUNKARIA.**— Arrazoiz nola azal daiteke Jugoslavia ohian gertatu dena?

**SAMIC.**— Oso zaila da, baina ideologia bat martxan jartzen

askoz ere urrunago, eta zerua-ren eta luraren izenean uste dute dena egiteko eskubidea dutela.

**EGUNKARIA.**— Serbiar batzuez ari zara...

**SAMIC.**— Jakina, nik herriaz ezin dudalako hitz egin. Ez dut hitz hori maite, han erabilia izan ondoren. Nik badakit zer den pertsona bat, eta zer den ideologia, baina ez dakit herria zer den. Ideologia horren izenean erabili dituzte gaiztoak ez diren pertsonak, eta esan diete: «Jendea hiltzen ez baduzue, hil egingo zaituztegu». Arazoa

painiako Gerra Zibilean gertatutakoarekin. Nola gogoratuko dute bosniarrek Europak izan duen jokaera?

**SAMIC.**— Bosniarrek beti esaten zuten europarrak zirela. Baina gaur egun erabat etsirik daude Europak izan duen jarrerarekin. Orain hasiak dira esaten «gu ez gara europarrak», Europa garbiketa etnikoaren alde jarri delako. Espainiako Gerra Zibila, ba, hori, zibila zen, baina pareka daiteke Europak izan duen jokarantengatik bere konplizitatearengatik.

**EGUNKARIA.**— Ematen du

«Belgradek ezin izango du irabazi, urrunegi joan delako. Eta krimenak hain urrun jotzen duenean, galtzen du».

jendea, hala ere, oraindik ez dela horko gerrak ekar ditzakeen arazoez jabetu.

**SAMIC.**— Ez dute oraindik nazismoa ikusi; intelektual 'argienek' ere esaten dute: 'Arriskutsua izan daiteke Europako alde horretan'. Uste dute bakarrik ekialdea izango dela kutsatuta, eta ni ez nago ados. Kriminal batek ez du gelditzerik, geldiarazi egin behar dute.

**EGUNKARIA.**— Literaturak eta poesiak oraindik zerbaite-tarako balio du Sarajevon?

**SAMIC.**— Jakina, askorako! Hango jendea inoiz baino gehiago joaten da antzerkira, erakusketak ikustera, eta asko irakurtzen dute... Lehen ez zen hainbesterako, telebista edo erosketak maite zituzten. Orain kulturak on handia egiten die. Milaka erakusketa izan da bi urte hauetan. Literaturak salbatu egiten du, arima salbatzen du. Ez du gerra geldiaraziko, inoiz ez, baina zerbaite-tarako balio du.

## Jasna Samic

IDAZLEA



SOSLAIA

### Parisen eta Sarajevon

Sarajevon jaioa, Ekialdeko Hizkuntza eta Literaturan —turkiarra, arabiarra eta pertsiarra— lizentziaduna, hogeitaz eman zituen eskolak Bosniako hiriburuan Filosofia Fakultatean, 1992an gerrak ezta egin zuen arte. Parisen eta Sarajevon bizi izandakoa urteetan, bi hirien kosmopolitismoa du maitean, nahiz eta Sarajevon horren aztarnak besterik ezin sumatu. Gogor kritikatu du Mendebaleko estatuen jarrera Bosniako gerran, eta intelektual asko han gertatzen denaz oraindik ez dela jabetu azpimarratu du. Euskal Herrira heldu zen duela urtebete Baionako Maiatz Elkarteak antolatutako senidearteko jardunaldien eskutik.



Jasna Samic.

JOXE LACALLE

terikoa. Nire ama oraindik han dago, eta bi urte eman ditut bonbak buruan ditudala. Bonba mutuak dira, nire ametsetan erortzen direnak. Tamalgarria da, eta asko sentitzen dut han, nire jendearekin ez egotea.

**EGUNKARIA.**— Uste duzu inoiz ikusi ahal izango dela lehengo Sarajevo?

**SAMIC.**— Nik ez dut inoiz izugarri maite izan Jugoslaviako Sarajevo. Oraindik hobea izango den esperantza badaukat, behin eraikin guztiak berriro altxatu eta. Nik ez baitut sinesten odol garbiko arrazan. Gizakiak garbitzen hasten bagara, azkenean zelulak ere garbituko ditugu, odola, eta ez dut horretan sinesten. Uste dut

denean, 50eko urteetan erabat irakatsia izan den herri bat manipulatu dena, azal daiteke. Baina urrunegi joan dira eta hori ezin da arrazoiz azaldu. Pertsona bat hiltzeagatik urte asko egoten da jendea kartzelan, eta orain, ehundaka mila pertsona beren etxeetan garbituta ere, ez da ezer egiten, are gehiago: Mendebaldeko kriminalei laguntzen diete. Hori da ulertezina. Ideologia, ordea, ulertzekoa da. Serbiar batzuek garbiketa teknikoan oinarritzen diren joan den mendeko teoriak hartu dituzte, urteetan izan dutelako buruan Kosovoko guda, beraiantzako zerutik etorritako garaipena. Joan dira

hori guztia hasi duen *intelligentsia* serbiarra da.

**EGUNKARIA.**— Baduzu harremanik intelektual serbiarrek?

**SAMIC.**— Badira batzuk bere horretan gelditu direnak, baina gero eta gutxiago dira. Gainera, Mendebaldeko kriminalei laguntzen dienez, intelektual hauek erabat bazterturik daude, ia ez dira inon ateratzen.

**EGUNKARIA.**— Zein izan daiteke intelektualen lana Sarajevo baketzeko?

**SAMIC.**— Egia esan beharra dago, nazioarteko manipulazioa ia ikustezinaren oihala urratzeko.

**EGUNKARIA.**— Askotan paretzen da Bosniaren gerra Es-

## NIKIJATOR

© Zaldi Eroak

